

@@@AGINDUA, 2011ko maiatzaren 25ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Sopelanako (Bizkaia) «Poz-Pozik» Haur Eskola Pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena emateko dena.@@@

Sopelanako (Bizkaia) «Poz-Pozik» Haur Eskola Pribatuko titularrek abiarazi duten espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita eskolaren titulartasuna aldatzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- «Poz-Pozik» Haur Eskola Pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematen da: egun, «Comunidad de Bienes XXXXXXXXXXXX, XXXXXXXXXXXX, XXXXXXXXXXXX » erakundeak du titulartasuna, baina, aurrerantzean, «Guardería Poz-Pozik, S.L.» erakundeak izango du, eta ikastetxea eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatuko du. Ikastetxea Sopelanako (Bizkaia) Sipiri kalean dago, 27. zenbakian, eta 48017174 kode-zenbakia du.

2. artikulua.- Titulartasun-aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da, baina horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honek 2011ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 25a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,  
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.